

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### **Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea**

Alkatearen ekainaren 11ko 325/2025 Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu da:

Aztertu da: beharrezkoa dela idazkari-kontuhartzailearen lanpostua betetzea, hutsik baitago.

Oinarria. Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak.

Oinarria. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1 g) artikuluan xedatutakoaren arabera alkateari dagozkion eskumenak.

Alkate-lehendakari honek hau

#### EBAZTEN DU

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost (5) egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharrek lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkez ditzaten, eranskin gisa doan ereduaren arabera adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Laugarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailera.

Taldea: A-1.

Destino-osagarria: 26.

Berriazko osagarria: 25.979,76.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2025eko ekainaren 11

*Alkate-lehendakaria*

*PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA*

### ERANSKINA

Nik, ..... jaunak/andreak (NANa: .....; jakinarazpenetarako helbidea: .....; telefono zenbakia: .....; Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, ..... azpieskalakoa; gaur egun ..... lanpostuan dihardut, ..... toki erakundean, .....(e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: ..... / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–),

### ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako hutsik egongo dela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

### ESKATZEN DUT

Aiarako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eransten ditut:

\*NANaren fotokopia.

\*Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

\*Zeregin pilaketagatik beste izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, eta lan egiten dudaren erakundearen adostasuna (lanpostua zeregin pilaketagatik eskatuz gero).

\*Lan egiten dudaren erakundearen baimena (lanpostua zerbitzu eginkizunetan eskatuz gero).